

Karkara

karkara.com

❖ **Orioko eta Aiako aldizkaria** · 2014ko irailaren 26a · 354. zenbakia. 26. urtea



Etorkizuna herritarren esku

Hasiberriak izanagatik, iristen ari da Orain plataformaren lehen legegaldiaren amaiera. Egindako ibilbideaz aritu dira KARKARAREKIN.

18

Nire Honetan
Jon Garate

22

Argazkiak
Kontxako Estropadak

24

Erreportajea
Kilometroak

35

Kritika
Reggae Kontzertua

azkue

karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com



Zaragueta
Herri Eskola *Orio*

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

XS

arKitekTura

hemikobarro 6, zarautz

eroikuntza zerbitzuak
errehabilitazioak
obrak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
eraikinen mantenua

Borja Agirresorobe Lopetegi
635 731 722

SU KIA

SUZUMAILA - SUZUMAILA

On egi eta gero... tarte KOPA eta TOPALI

- OLASKO ERREAK ERAMATEKO
- EDUREKO MENJA
- EDUKATIAK
- OGIA

TEL: 943 83 15 17
www.sukia.net

URAITZ

literaturak
gaitz-argazkiak

Endakiz, Tf: 943 83 15 17



kutixi
kafeetegia
GOSARI GOWAK

Asteleke 9, 20810 Orio
943 13 15 17



KNOBGT TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiuak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Izarra Bideoa

PHILIPS 40"

363 €



0.95 €
SANDISK 8GB

Buel'tan da,
Hemen da!

HP 500GB

329 €



RENOVE PLANA

21 hilabete interesik gabe

ZANUSSI BITRO

159 €



DOAN

BOSCH A+++
7kg 1000r/min

359 €



21

TEKA

739 €



Eusko gudari, 44 • 943 833 881

zure kreditu txartela



354

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Miriam Garcia,
Iñaki Iturain,
Idurre Lizarralde,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Idurre Telleria

Ale honetako

kolaboratzaileak

Onetsine Arrizabalaga,
Jon Ander Azpiroz,
Iñigo Gaiton,
Lukene Lizaso,
Itziar Urretabizkaia

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Nora Pielago eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzun-
kizunik. KARKARAN argitaratu-
takoa berreman daiteke,
osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

TOKIKOM

LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jaurlaritzaren
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

HASI BERTSOTAN

IÑAKILARRAÑAGA (AZKEN ARNASA EMAN NAHI NUKE)

Kurtso berrira begira

Udako izpiak badoaz eta
indarra haiengan bailtzen,
txapel azpira sartu ohi gera
onddo beltz ederren gisan.
Berdin du nork bilduko gaituen
hegoaizea peskisan,
utzikerian nahiko lan degu
bakoitzak bere bizitzan,
udazkenean bakardadea
beti ez da ona izan.

Bai kirolean, bai herrigintzan,
bertsoeskolan zer konta...
asko gabilitza, moda modura,
tren erosora igota,
hemen norbera majo bizi da
auzoak ez du inporta,
bakoitzak daki nola erria
ondoan bere txikita,
nik ezin dizut eskutik heldu
zure esku (e)re badago ta...

Udazkena ate joka dago
pasaz kontxaren esola,
kurtsoa hasita piztu asmotan
giza jarriren eskola.
Etxekolan bat jarri nahi nuke
maisu zaharren kontrola,
lozorroa utzi, pausoa luza
nahiz besteei ez axola,
jakin zuri eta inguruari
ongarri izango zaiola.



Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Idurre)

karkara@karkara.com



karkara.com

Euskal Dantzen Ikastaroa

Ikasturte berriarekin batera, aurtun ere gure saioekin hastera goaz. Kontuan izan 18 urtetik gorako edonork parte hartu dezakeela eta Fandango, Arin-arin, Mutxikoak, Larrain dantza, eta abar ikasteko aukera izango duela. Ikasturtearen hasiera, urriaren leian, gaueko 21:00etan izango da, Kosta Tailerrean. ■ **Helduen Dantza Eskola.**

Talai Mendi, M.A.

Pena sentitzen dut

Pena.

Orioko odola duginok harro egon gara, ez arraunlariak hoberenak direlako, baizik eta Orioko kaleetan euskaraz jostatzen ikusten genituelako umeak, tabernetan gazteak euskaraz entzuten genituelako eta adinekoak plazan euskaraz ari zirelako arraunlarien entrenamenduak komentatzen. Baina orain telebistaz traineruko irudiak ikusten ditugunean, erderaz entzuten ditugu behin eta berriz. Eta pena sentitzen dut. Mila kanpaina baino eraginkorragoa da umeentzat beren idoloak euskaraz entzutea. Traineruan Erria Txikota eramateak ez du txalupa euskaldunduko. ■ **Aitor Sarasua.**

Zorionak Orioko neskei!

Lehenik eta behin nire zorionik haundiena Orioko Arraun Elkartean arraunean dabiltzan neskei! Aurtun egindako denboraldi amaiera izugarria izan da. Gogor entrenatu duzue eta ez dizute ezer oparitu. Baina kexa txiki bat daukat, eta ez dakit nori zuzendu, horregatik KARKARA bidez egitea erabaki dut. Aurreneko aldia zen Kontxako estropadan sailkatzen zirela, askoei entzun diet historia egin dutela. Igandean ongi etorria egingo zietela espero genuen, hala merezi zutelako, baina ezer ere ez... Azkenean neskak plazara joan ziren han bildu gineno eskerrak ematera eta giro polita sortu zen. Baina nire galdera da, ez al zuten zer bait gehiago merezi? Udaletxeko ateak eta balkoia

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARA ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARA esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutiaz laburtzeko eskubidea.

irekitzea horrenbesteko lana al da? Nork erabakitzen du noiz irekiko den eta noiz ez? Igandean neskak protagonista ziren; eguna borobiltzeko eta berrekin keinu polit bat egiteko aukera galdu dutela iruditzen zait. Neskak! Zuek orain arte bezala jarraitu lanean eta emaitzak lortuko dituzue! Eta gu han izango gara zuekin ospatzen! ■ **Idoia Elizondo.**

Egunkariaren epaiketa

Irailaren 19an Gipuzkoako epaileek erabaki bat hartu behar dute: Egunkaria berriz epaitu ala ez. Sorrera 2003ko Madrilgo Exekutiboan eta garapena Madrilgo Auzitegi Nazionalan izan arren, Gipuzkoako epaileei erori zaie altzora auzia. Hangoek hasitakoari hementxo amaiera eman behar, horra hor paradoxa. Euskal gizartetik urruneko epaileek hasi, Euskal Herriko bertako gizartean txertaturiko epaileek amaiera eman behar. Ozen esan nahi dugu: ez zen Egunkaria auzirik inoiz izan behar, eta auziak iraun badu ere 2010ean Madrilgo Auzitegi Nazionalan egindako epaiarekin behin betiko bukatu behar zuen. Jarraitu egin du ordea, eta hemen gaude. Zergatik? Jatorrizko eragin politikoa ikusten

dugu guk. Sineste osoarekin diogu. Eragin politikoa egon zen auziaren sorreran, 2003ko otsailean, antzerako beste hainbat kasutan bezala, eta eragin politikoa dakusagu orain, 2014an fiskalak berriro akusazioari eusten diotenean.

Ez zaigu iruditzen Demokraziaren eta Zuzenbidearen ondorioa denik Egunkaria auzia, botere exekutiboaren estrategiaren eragina baizik.

Kaltea jada eginda dago, eta handia gainera. Euskal jendartearen memoria kolektiboan iltzatuta iraungo du Egunkariaren itxiera eta auziak. Kalte pertsonal eta sozial larriak egin dira jada, eta oraindik ez dira amaitu. Auzitegi Nazionalak berak absolbitu egin zituen auzipetuak, eta kalteen aitortza ere egin zuen hein batean. Ordainik ez omen da izango, ordea.

Justizia jada ezinezkotzat ematen dugu, dagoeneko legedi eta agintaritzarekin. Gaitzerdi beraz, injustiziaren sarraskia gelditzea behintzat, aurrera ez joatea, lortuko bagenu. Nola lortu kalteari bidea moztea? Era bakarra dago: auzia dagoen horretan bertan behera utzita.

Auzipetuek ez dute merezi akusatuen aulkian eseri arazita gehiago zigortzerik, batzuek bigarren, ez eta absolbitzeko bada ere. Nahikoa da. Nahikoa pairatu dute. Ez gehiago luzapenik. Ez gehiago noraez. Epaiketa gehiagorik ez Egunkariari. ■ **Egunkariaren Alde elkarte**

Goikokaleko festek hamar urte

Badira hamar urte Goikokaleko festak biziberritu nahi eta lagun koadrila bat bildu ginela. Egun eta erdikoa izan zen 2004ko hura. Pixkanaka-pixkanaka asteburu osora luzatu genuen jaia. Eta izerdi askorekin lortu dugu gure ametsa: gure Goikokalea, urtean behin bada ere, biziberritzea.

Ez da marka makala gurea! Hamarkada oso bat ametsetan; ospatu beharko, ezta?

Festa batzordeak 10. urteurrena ospa-

tu egin nahi du, eta Goikokalen ondo dakigun moduan egingo dugu: mahaia-
ren bueltan eta musika lagun. Baina
horretarako hamar urte hauetan gure
ametsa egia bihurtzen lagundu digute-
nak nahi ditugu alboan.

Urriaren 11n, larunbatarekin, bazkari
bat antolatu dugu Balea elkartearen. Ba-

barrun jana, postreaz eta edariaz la-
gundua. Urtero legez, Bentazarreko
mutiko alaiak etorriko dira bazkalos-
tea girotzera. Bazkariaren prezioa 10
€koa izango da eta txartelak saltzerako
orduan lehentasuna eman nahi izan
diegu hamar urte hauetan lagundu di-
gutenei.

Hala ere, jende gehiagorentzat ere
izango da lekua. Asko baitira gurekin
urtero festara bildu direnak. Urriaren
2tik aurrera, soberan diren txartelak
kultur etxean eta turismo bulegoan ja-
rriko ditugu salgai. Beraz, nahi izanez
gero, azaldu bertara.

■ **Goikokaleko festa batzordea**

■ ZORIONAK!

Talai-Mendi txarangari

Orioko arraunlariak irabazitako
banderek ospakizun bikoitza
izaten dute: estropadan bertan
eta herrian, erreizibimenduan. Herri-
tar talde batek herritar guztion ospaki-
zunari piparra jartzen dion txaranga
osatu du, Talai Mendi txaranga. *Yellow
submarinetik*, Ramonesen *Hey! Oh!*
Let's go!-ra salto eta jauzika; erreper-
torio luzea dute. Kideak ere mordo dira,
perkuso eta haizezko instrumentu
ugari erreizibimenduari haize berriak
ematen, polo beltz eta guzti.

Aliroiean soilik ez, beste hainbat fes-
tetan ere hartu dute parte: sanpedro-
tan, Bixigu festan... Ordu txikietan bizi-
lagun askoren loa kendu arren, beste
askoren festarako eta ospakizunetara-
ko gogoia piztu du Talai Mendi Txaran-
gak, hortaz, zorionak!

■ JAIOTAKOAK

- Enara Larrañaga Urkizu, Donostian, irailaren 7an.
- Mikel eta Kilian Etxeberria Iribar, Donostian, irailaren 11n.
- Lis Albizu Corrales, Donostian, irailaren 11n.
- Xabi Puertas Velasco, Donostian, irailaren 15ean.

■ EZKONDUTAKOAK

- Jorge Alfageme Menor eta Isaura Parada Gozategi, Orion, irailaren 4an.

Eskela edo urteurreneko gogoan-
garria Karkaran jarri nahi baduzu,
deitu gure telefonora:

943 83 15 27

■ HILDAKOAK

- Joakin Mendizabal Aiestaran, Orion, abuztuaren 21ean. 87 urte.
- Jose Benito Brit Aierbe, Orion, abuztuaren 23an. 61 urte.
- Gabina Salsamendi Salsamendi, Orion, abuztuaren 23an. 68 urte.
- Justo Aramendi Etxezarreta, Orion, abuztuaren 27an. 81 urte.
- Bixente Gaztañazpi Otaño, Orion, irailaren 2an. 59 urte.
- Pedro Joxe Balerdi Zabala, Orion, irailaren 5ean. 87 urte.
- Remigio Lertxundi Ibargoiien, Orion, irailaren 6an. 84 urte.
- Joakin Lertundi Ibargoiien, Orion, irailaren 8an. 78 urte.
- Esteban Jauregi Abarrategi, Orion, irailaren 8an. 80 urte.
- Alejo Arruti Lertxundi, Orion, irailaren 23an. 93 urte.

Iraileko sarituak

Pello Iturria Sarasibar

Sayalero okindegia

Itziar Olariaga Larrañaga

Oriogi okindegia

30€

Arkupeko dendetan gastatzeko



Egin
zaitez
laguntzaile

K
Karkara



Orioko Antilla hondartzan jendea bainatzen.



Txu-txu tren.



Aiako igerilekua iraileko ostegun burusoil batean .

Iraila, balantze garaia

“Badira hainbat sektore, uda osoa lanean pasatu ondoren, iraila balantzea egiteko hartzen dutenak.”

Iraila itzuleraz beteriko hilabetea da, oporrak amaitu eta aldapan gora hastekoa. Bainabadira batzuk uda osoa lanean pasatu ondoren, iraila hiru hilabeteetako balantzea egiteko hartzen dutenak. Turismoa, hondartza eta arrantza dira Orion eta Aian udako jarduera nagusiak.

Turismoan, bisitari kopurua igo egin da Orion aurreko urtekoarekin alderatuz. 2013an 7478 bisitari pasatu ziren Turismo Bulegotik ekainetik irailera; 2014an, berriz, 7955. Horietatik %31 Euskaditik, %43 espainiar estatutik, eta %26 kanpotik etorritakoak direla diote datuek. Eskari arrunte-nak, Orioko informazioaz gain, ur jarduerak edo mendi ibilbideak egiteko aukera, eskualdeko informazioa eta Donostia eta Bilboko informazioa eta planoak dira. Erromesen ostatuari eta bideko hurrengo etapei buruzko informazioa ere eskatu dute, udako bisitari guztietatik 1496 erromesak baitziren.

Aiako igerilekura joaten direnak, aldiz, bertako familiak izaten dira. Bisitak asko gutxitu direla dio hango arduradunak: guztira 700 heldu eta 700 haur inguru izan dira aurtén, 1400 denera.

Uda garaian Orion bisitari gehien jasotzen dituen tokia hondartza da, eta guztien ongizatea bermatzeko sorosleak lanean diardute uda osoan. Gurutze gorriaren datuen arabera aurtengo udan osasun laguntza kopurua jaitsi egin da iazkoaren aldean. Antilla hondartzan 597 laguntza izan dira hiru hilabetetan, gehienak zauri edo ebakiengatik –265– eta traumatismo itxiengatik –118–; uretan eginiko erreskateak 30 izan dira, eta ez da marmoka ziztadarik izan uda osoan.

Aurtengo udan zenbaki ez hain positiboak dituen arloa arrantza da. Hegaluzearen kanpaina oso txarra izan da eta behar baino lehenago utzi dute. Bizkaiko golkoan ia ez da arrainik sartu eta arrantzaleek etxetik 800 milietara –Irlandako uretaraino– joan behar izan dute lanera.

Zer egingo duzu Kilometroak egunean?



“Ezin izango dut egunean bertan lan egin.”

Kilometroak egunean ezin dut lanean ibili, kafeteri batean bainago lanean eta han egotea egokitzen baitzait. Hasieratik nekien egun horretan libre edukitzea zaila izango zela, hortaz, ez nau asko penatzen. Izan ere, urte osoan zehar aritu naiz lanean Kilometroak 2014 Jaiari laguntzeko.

Ahalik eta ekarpen handiena egiten ahalegindu naiz, posible izan dudan guztietan lagundu dut arropa salmentan. Egun horretan ere gustura lagunduko nuke, baina, esan bezala, lanean nago eta ezin izango dut joan. Hala ere, nik uste dut Kilometroak-en aldeko nire hondar alea ondo jarri dudala.

Nagore Esoain



“Kamerarekin ibiliko naiz gune batetik bestera.”

5.000 biztanleko herri bat 100.000 biztanle ingurukoa bilakatuko da egun baten, izugarria izango da. Gogoan dut Orio eta Zarautzek elkarrekin antolatu zuten Kilometroak Jaian jende mordo ibili zela, lanez lepo izan ginela; eta oraingoan, horiek guztiak Orion bilduko dira...

Nire ofizioarekin lotura duen ardura izango dut urriaren 5ean, argazkiak ateratzen ibiliko bainaiz. Goizean goizetik gune batetik bestera ibiliko naiz argazki makina eskuan dudala. Lehenago ere ibili naiz Kilometroak ekimenarentzat argazkiak ateratzen, eta paneletan egongo dira ikusgai egunean bertan.

Iban Egiguren



“Bi seme-alaba ditut eta berekin igaroko dut eguna”

Egun polita izango da urriko lehen igandekoa. Herrian horrelako jaia egitea, Ikastolaren alde, ederra izango da. Ez naiz lanean arituko, bi seme-alaba baitauzkat eta berekin igaroko baitut eguna, alde batetik bestera.

Gainera, haurrentzako eskaintza zabalago dago eta hori oso garrantzitsua da niretzat. Hirugarren gunean, esaterako, puzgailuak, jokoak eta Pirritx, Porrortx eta Marimotots pailazoak egongo direnez, han denbora luze egongo gara. Haurrentzako oso egokia da gune hori. Dena den, zirkuituari bira osoa ere emango diogu; festaren oinarrian hori baitago.

Ibai Makazaga



Ubegun industriagune, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



“Ez dakigu hauteskundeetara berriz aurkeztuko garen”

Miriam Uranga

Alkateordea eta Orain plataformako zinegotzia

Miriam Uranga -Orio, 1973 - Orioko alkateordea eta Orain plataformako kidea. Zuzenbidean lizentziatua, ekonomian diplomaturua eta Eroski koop.eko analisi eta estratergiaren arduraduna. Hiru urte egin ditu lana eta politika uztartzen herritarren nahietara egokitutako Orio bat lortzeko helburuarekin.

TESTUA: OLATZ ARTOLA ETA MIRIAM GARCIA

ARGAZKIAK: KARKARA

Datozen hauteskundeetan aurkeztuko al zarete?

Ez dakigu.

Zergatik?

Hausnarketa mahai gainean dago baina ez daukagu ez baiezkorik, ez ezezkorik. Jendeak gure lana ea ulertu duen jakin nahi dugu, ea gure izateari zentzua aurkitzen dion. Herritarrengandik jasotzen dugun feedbackaren arabera izango da gure erabakia.

Lau urte denbora asko ala gutxi den, erlatiboa da. Proiektuak garatzeko, adibidez, motz geratu zaigu. Udalaren funtzionamentua ezagutu dugunerako agortu zaigu denbora, efizientegoak izaten hasi garenean, hain juxtu. Hasi ditugun proiektua borobiltzeko gogoia daukagu, eta pena emango liguke amaitu gabe uztea.

Baina, dena den, garrantzitsuena herritarren nahia da.

Guk ikusten badugu jendeak gure beharra ikusten duela eta gure eginkizuna eskertzen duela, orduan aurkeztuko gara.

Herritarrek daude zuen oinarrian.

Alderdi politiko bat beti aurkeztuko da, gaia bizi edo ez bizi. Gure argumentua bestelakoa zen. Jendea aspertuta zegoen eta Udalak beren beharren ez entzunarena egiten zuela sentitzen zuten. Izan alderdi batekoa edo bestekoa, pertzepzio amankomuna zen eta horregatik sortu ginen. Orain behar hori ikusten ez badute, jai daukagu.

Nola bilatu duzue herritarren partaidetza?

Beti irekiak izan gara. Jaso ditugun proposamen guztiak tramitatu ditugu, nahiz eta ez diren asko izan iritsi zaizkigunak. Sinatuta zeudenak erantzun ditugu; anonimoei, ordea, ezin izan diegu erantzunik eman.

Gaiak gertutasunetik tratatzen ahalegindu gara; egokitzen zitzaigun alor hori lehen pertsonen bizi dutenekin jarri gara kontaktuan, horrela saiaturiko gara jendeari entzuten. Izan ere, deialdi irekia egiten duzunean ez da apenas partaidetza-





rik egoten. Jendeari asko kostatzen zaio kea idatziz jartzea, baina kontuan eduki behar dugu indarra horrek duela. Ez da kritika gratuitoa egin behar, konstruktiboa egin behar da al-daketa bat nahi badugu.

Taldean ere posizionamendu ezberdineko kideak zaudete.

Pertsona bat, bozka bat. Gehiengoa ateratzen dena bozkatzten dugu plenoan, nahiz eta zure iritzi pertsonala ez izan.

Orokorrean gaia asko lantzen ahalegintzen gara, posturak adosten. Ez dago ezezko borobilik, ezta baiezko trinkorik ere. Irekiak gara, eta bakoitzak berea defendatu arren, gaiak lantzen ditugu ateratzen dena ulertzeraino. Gainera, gauzak normalean ez dira txuriak eta beltzak, eta hala direnean, bat egiten dugu.

Zer egin zaizue zailena?

Hasierako ezjakintasuna. Frustrantea zen, baina aldi berean, polita izan zen. Gogo handia genuen eta hasi ginenean ilusio handia.

Orain ez, ala?

Ilusioa hor dago, bestela ez ginateke hemen egongo. Baina ez da berdina.

Eta zer izan da esperientzia honetako gauzarik politena?

Egin dugun taldea. Zeharo ezberdinak gara baina oso harreman ona daukagu. Hasierako taldetik lau edo bost joan zaizkigu; Motondok garrantzia handia izan zuen taldean, oso gai gatazkatsua izan zen.

Zergatik?

Guztiak alde geuden, baina aurrera eramateko prozesuan ez-

“Jendeak gure beharra ikusten duela eta gure eginkizuna eskertzen duela nabaritzen badugu, berriz aurkeztuko gara.”



berdintasunak genituen.

Zuen botoa Motondoko proiektuaren aldekoa, baina, egikaritzearen aurkakoa izan zen.

2001ean bi milioi ingururengatik Elosegiri erosi zitzaion, urte hasiera batean, soberakinetatik.

Inbertsio bat izan zela diote...

Hondartzako eremua erosi zenean argi zegoen non inbertitu behar zuten: eraikitzen. Oraingoan ez dakit nora bideratu nahi zuten dirua, eta askotan galdetu diegun arren, ez dugu erantzunik jasoa.

Dirua herritarrena zen. Eusko Jaurlaritzak prest dago eremu hori garatzeko, baina ez dago prest lur hori erosteko. Elosegirena jarraituko balu izaten, Eusko Jaurlaritzak jabetza kenduko lioke. Oriotarrona denez, guri jabetza kentzea eta dirua bueltatzea zen gure asmoa.

Udaleko teknikariek zilegi dela diote dirua berreskuratzea. Eusko Jaurlaritzak, ordea, ezinezkoa dela. Adituak berak direnez, bien arteko aurrez aurreko bat egitea eskatu genuen, baina oraindik zain gaude.

Gure eginkizuna dirua berreskuratzea da. Bilduk, ordea, bere hanka sartzea izan ez zenez, diru hori galtzeari ez dio garrantziarik ematen.

Diru laguntza eskura izan zenuten eta ezezkoa bozkatu zuten...

Diru laguntza minimoa zen –254 mila euro– Motondok duen kostuarekin alderatuz gero –3 milioi–. Berreskuratzeak aukerak amaitu arte hori lortzeko borrokan jarraituko dugu.

Bien bitartean, argi daukagu Motondo Garrantzi Komunitarioko Lekua –GLK edo LIC– dela eta ideia hori herrian zabalitzen saiatuko gara. Motondo maitatu behar dute oriotarrek, proiektua garatzean bere sentitzeko.

Soka luzea ekarri duen gaia izan da Motondo. Askok uste dute zuen bozkagatik irabazi zuela baieztakoak.

Askotan, zorionez edo zoritxarrez giltza gara. Hasieran beste alderdiekin alderatzen genituen bozkak, baina azken bi urtetan ez. Halaber, batzordeetan lantzen dira gaiak, aurretiaz, eta badakizu bakoitzaren botoa zein izango den. Batzuetan EAJk gauzak bat esan eta bestea bozkatu duen arren, oro har, badakizu plenoan ze gertatuko den.

Ze harremana izan duzue beste alderdiekin?

EAJ ez da proposamenekin gerturatu. Asko dituztela zioten, baina ez dute bat bera ere mahai gainean ipini. Hala balitz aztertuko genituzke eta interesgarriak balira aurrera eramaten ahaleginduko ginake. Bildu etorri da proposamenak zituenean eta ados geudenean baietza eman diegu.

Jarrera irekia daukagu bi alderdiekin. Iturriak ez du garrantzia, edukiak du balioa guretzat.

Ludoteka zuek proposamena luzatuta atera zen, ezta?

Kakioko etxebizitzaren salmentarekin Bilduk alokairu sozialak egin nahi zituen eta EAJk saldu egin nahi zituen. Ludoteka herriak eskatzen zuen proiektuetako bat izanik, EAJri esan genion beren bozka bera emango genuela diruaren erabilpena baldintzatuz gero, eta ludoteka egiteko erabili. Abala kobratu dugu eta martxan dago proiektua.

“Motondo inbertsioa zen, baina ez dakit dirua nora bideratu nahi zuten; askotan galdetu diegu eta ez dugu erantzunik jaso.”

Hiru alderdiak Txurumuskirekin laguntzarekin proiektu pedagogikoa garatzen ari gara. Lokala ere begiratzen ari gara, martxan jartzen. Dirua badago, forma ematea falta da eta horretan gabiltza. Datorren urterako irekita egotea nahi dugu.

Bialderdi politikoak ados daudenean, ordea, ez duzue zer eginik.

Arrue ahizpen zorrarekin hori gertatzen. Orain dela 60 urte baina gehiagoko zorra zen, 77 mila eurokoa. Hondartzako plana gauzatu zuen higiezin agentziari zor zitzaion dirua; eta orduan konpondu ordez guztia, orain ordaindu dute zorra. Gure iritziz, onartezina da EAJk eta Bilduk zor hori orain ordaintzeko erabakia hartu izana. Zati bat ordainduta dago eta bestea geroago egingo da.

Casas Baratasen proiektuan ezezkoa jaso zenuten, baina azkenean aurrera ateratu da.

Ez genuen onartu ezezkoa, herriarentzako hobekuntza handia eta bizilagunentzako kalte txikia izango zuela uste baike-nuen. Bilerak egin genituen bertako bizilagunekin; polita izan zen prozesua, garapena. Haserraldiak egon ziren, baina amaierarako guztiak pozik geuden. Bizilagunek mesedea egin ziguten partzela pribatuaren zati bat ematen, baina amaieran berak ere gustura geratu ziren. Oso aberatsa izan zen, oso sentsazio onarekin amaitu genuen.

Arraun teknifikazio zentroa, ez al du erabilerea eskasa horrelako eraikuntza eginda?

Batez ere arraun taldearentzat izan da, baina beste erabil-tzaile batzuk izateko asmoa zegoen. Ibilbide luzea izango du, pixkanaka-pixkanaka joan behar dugu. Uda honetan Begi-Bistanek hartu du, aisialdirako eskaintza zabalarekin.

Zer nolako harrera izan du?

Egin duen eguraldia ez da oso lagungarria izan. Berak ilusio-natuta daude, gogoz beteta. Pack modukoak egin dituzte eta Oriaren jaitsiera egin nahi dute, urteroko zita izango dena eta historian iltzatuta geldituko dena.

Eta etorkizunera begira, baduzue proiekturik?

Medikuntza, fisioterapia eta elikaduraren inguruko hezkun-tza jarriko du martxan BPX enpresak laister. Lehiaketa bidez aukeratu genuen hutsune hori beteko zuen enpresa, eta be-rak bakarrik aurkeztu ziren.

Esfortzua egin dugu, saiatu gara erabilpena ematen, baina uste baina txikiagoa eman diogu. Orain etxekotu gara lokala-rekin, baina potentzial handia dauka eta zukua ateratu behar diogu.

Ekonomikoki bideragarria izatera heltzeraino?

Mantenua Udalarena da, hortaz, teknifikazio zentroak ere diru sarrerak ekarri behar ditu. Autofinantzatu egin behar da, bai aurrera egiteko, bai mantentzeko.

Duela gutxi Karkara.com-en eztabaida izan zen patroiak kamararen aurrean gazteleraz egiten duelako. Hor zuek esku hartzerik ba al duzue?

Euskararen erabileraren inguruko irizpideak txertatzen ari gara. Euskara plana sinatu dugu eta horrekin, ematen ditugun kontzesio guztietan birziklatzeko irizpideak sartzen di-ren bezala, euskarazko eta berdintasunaren inguruko irizpi-deak ere txertatuko ditugu. Azken finean, plan bat egin eta di-rua jartzen duenaren irizpideak onartu beharko ditu jasotzen dituenak. Eta ez betetzeagatik penalizazioak egon daitezke.

Gero, hori betetzen den edo ez nola neurtu beste kontu bat da. Irizpideak jartzea erraza da, baina zein koefizienterekin neurtu jakitea ez da hainbeste.

Kosta Tailerrean dago Udalaren euskara politikaren ingu-ruko adibide bat: bertan ematen dena euskaraz bada, doan erabil ditzake talde batek instalazioak. Gazteleraz bada, be-rriz, ordaindu egin beharko dute Kosta Tailerraren erabilera.

Arraunaren kasuan, berak kontziente izan behar dute ka-mera baten aurrean daudela eta erreferente direla. Elkarte bat eta herri bat ari dira ordezkatzeko, ez dira pertsona fisikoa soilik.

Turismoko gaietan sartuz, Kanpina apostu bat izan da lege-aldi honetan?

Bai. Bere garaian kanpin handi eta ederra zegoen Orion. Ospe handia eduki du betidanik. Hondartzako lan guztiak egin zirenean asko mermatu zuen, eta utzita zegoen.

Boom inmobiliarioa erori zenean argi geratu zen, hirigin-tza nola dagoen ikusita, etxebizitza gehiago ez zirela egingo inguru horretan epe labur edo ertainera. Orduan zen mo-mentua Kanpina ondo jartzeko. Gainera, Udalaren diru sa-



rrera arrunten iturri nagusia Kanpina da, eta zaindu beharra dago.

Bungalowak izan dira berrikuntza nagusia. Zer bilatu da horiekin eta nolakoa izan da harrera?

Hasiera batean partzelen azpiegiturak berritu ziren, eta bungalowak jarri behar zirela ere argi zegoen. Azken finean, gaur egun, eskaera hori dago eta garbi ikusi da hobekuntza: aurtengo hileroko 2013ko urtearekin alderatuz fakturazioa bikoiztu egin da eta errotazio handia egon da. Bungalowen helburua Kanpinari eta herriari balio erantsia ematea zen. Azken finean, erakarrirako jendeak, herriko ostalari eta merkataritanga ere eragin positiboa du.

Desestazionalizazioa ere bilatu da, udako egun beroez gain, beste urtarotetan ere Kanpina erakargarri izatea lortzeko. Orain falta dena langileak egoera berrira egokitzea da. Bungalowak jartzeak behar berriak ekarri ditu: izara eta toailak ditugu orain, mantentze lanetarako ere espezializazioa eta azkartasun gehiago eskatzen du... Egokitzen lanak egiteko garaia da orain.

Turismo teknikari eta Kanpineko zuzendariak postua utzi du. Zein irizpiderekin aukeratuko duzue zuzendari berria?

Turismo teknikariak Kanpina bere ardurapean zuen, bi lanak egiten zituen pertsona bakarrak. Duela hogeitun urte, bera hasi zenean, Orioko turismoa Kanpina besterik ez zen. Gaur egun, ordea, sekulako lan karga du turismoak, eta gu bi gauzak bereiztearen aldekoak gara.

Turismoaren menpe joan beharko luke Kanpinak, baina azken horretan zuzendaritza eta mantenu arduradun batek egon behar lukete, teknikariaren *besoak* izango litzatekenak. Turismo teknikariak, horrela, beste ardura batzuk har ditzazke: turismoa sustatu, turismo mahai bat sortu...

Mahaiaren beharra ikusten dugu eta Urola Kostako Mankomunitatearekin nahikoa bideratua dago gaia. Orioren turismo politika zehazten joateko eta inguruan ditugun aukerak ongi uztiatu ahal izateko balioko du: Donostia 2016, Atlantiar Jokoak eta Teknikifikazio zentrua –azken finean, turismoarekin oso lotua dago hori–, adibidez, zukua ateratzeko moduko gauzak dira.

Noiz hasiko da aukeraketa?

Turismo Bulegoan egoten zen pertsonak hartu ditu teknikariaren funtzio batzuk, eta Kanpineko harreran zegoen langile bat arduratzen da zuzendaritzaz oraingoz. Sistema horren funtzionamendua ezagutu nahi dugu edozein erabaki hartu aurretik. Zehazki zer nahi dugun jakiten dugunean eraginkorreragoak izango gara.

Legealdi berria datorrenez, hobe ikusten dugu prozesu hori hasten duenak amai dezala. Langile berrientzat, Kanpinarentzat eta turismoarentzat onena delako.

Kilometroak jaialdiko ibilbidea Kanpinetik pasako da. Nolatan hartu da erabakia?

Kanpina erakusteko, gehienbat, eta turismoa bultzatzeko. Gure bezero potentzialak ingurukoak dira: atzeritarrez gain, euskaldun asko etortzen dira bungalowetara. Gainera, bezeroek besterik ez dute ezagutzen Kanpina barrutik, eta kontziente gara kanpokaldean ez dela oso erakargarria –horren berrikuntza ere lantzen ari gara–. Beraz, oriotarrei ere



“Lotsagarria da kofradia zaharraren eraikinarekin gertatzen ari dena, ez dago ezer egiteko borondaterik.”



kanpina barrualdetik nola dagoen ikusteko aukera eman nahi diegu.

Hainbeste pertsona kanpin barruan ibiltzeak kalteak ekar ditzake.

Bai, beldur handia dugu. Kontziente gara jende asko etorriko dela eta, horregatik, igarotze zona bat besterik ezin du izan. Kanpinean bezero pribatuak daude eta hesiak jarriko ditugu bisitariak ibilbidean aurrerantz jarrai dezaten.

Orio herri arrantzalea izanik, arrantza indarra galtzen ari da. Horregatik ari zarete turismoari bultzada ematen?

Itsaspen-eko dirulaguntzaren funtsa, hain zuzen, hori da. Itsasertzeko guneen garapena bultzatu nahi du, arrantzan galtzen dena nolabait konpentsatzen ahaleginduz. Inbertsioak eta beste lanpostuak sortzen lagundu nahi du.

Kofradia zaharrarekin zer gertatzen da?

Lotsagarria da eraikin horrekin gertatzen ari dena. *Goitik* ez dago borondaterik ezer egiteko. Bilera ugari egiten da eta ez da ezer aurreratzen, eta pasatzen ari den denbora guztia eraikinaren aurka doa. Bitartean, eraikina hesituta eta egoera oso txarrean dago. Akordio batera ez iristea pena bat da.

Guk Kofradiaren egitasmoa babesten dugu, arazoa da es-

kumena ez dela Udalarena, Portu, Itsasertze eta Ur zuzendaritzena baizik. Bere garaian *Hirigune Historikoaren Eraberritze Plan Berezia* egin zen eta onartu zen, baina Itsasertze eta Ur Zuzendaritzek ez diote baliorik ematen arazoak ikusten dituztelako plan horretan. Mila buelta ematen ari gara gaiari baina inor ez da bustitzen.

Oriori Kofradia kentzea nortasun zati handi bat kentzea da. Denborarekin eraikin enblematiko asko galtzen joan gara, hau ere ezin dugu galdu. Historikoki eta kulturalki geurea da eta hor jarraitu behar duela uste dut.

Arrantzaleak ere kokoteraino daude, arrazoi guztiarekin gainera.

Eta berriarekin? Luizia gertatu zenetik zailtasun handiak dituzte hara iristeko.

Arazoa da, eroritako mendiaren lurra pribatua dela, eta jabeak ez duela baliabiderik hori konpontzeko. Sekulako dirutza kostatzen da hori konpontzea. Auzitegietan dago gaia, eta epairik ematen ez den bitartean ezer gutxi egin daiteke.

Hondartzako hondarraren egoera ere eskasa da, urtetik urtera okertzen doa eta udararo denen ahotan dagoen gaia da. Nola ikusten duzu?

“Guztiok ados ginen hondartzako hondarrarekin zerbait egin beharra zegoela, baina ez da komisiara heldu eta guk dakigula inor ez da gaia lantzen ari.”



Egia da hondarraren kalitatea geroz eta txarragoa dela. Azken aldiz gai hori duela bi urte landu genuen, EHUko adituek egindako ikerketaren hitzaldiaren harira. Konparaketa oso interesgarria zen, eta arazoaren jatorriak aipatzen ziren.

Guztiok ados ginen zerbait egin beharra zegoela –herritarrengatik gehienbat, eta turismoagatik baita ere–, baina hor geratu zen gaia. Ez da komisiotara heldu eta guk dakigula inor ez da hori lantzen ari. Arazoa konpondu beharra dago.

Eta zergaitik ez du aurrera egiten?

Askotan gaiak mahai kontsultiboan lantzen dira, baina ez dira batzordeetara iristen. Eta erabakiak hartzeko beharrezkoa da hori. Gai baten lanketak ez du baliorik hartzen komisiok bozkatzen den arte. Gai hori oraindik ez da batzordeetara iritsi eta gustatuko litzaiguke norbaitek indarrarekin hartu eta lantzea.

Plan orokor berria egingo da udazkenean. Zer nolako Orio nahi duzue etorkizunean?

Prozesu partehartzailea izatea nahi dugu, bilerak egingo dira herritarrekin, Orion zer nahi dugun oriotarren artean erabakitzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Azken finean herriaren etorkizuna dago plan horretan.

Garrantzitsua da plan berria egitea?

Behartuta egin behar izan dugu plan orokor berria, aurrekoak irregularitasunak zituelako. Auzitegietan arazoak izan dira, eta arazo juridiko gehiago egon zitezkeen planarekin aurrera jarraituz gero, ez baitzen guztiz garbia. Udaleko teknikariek gomendatu digute berria egiteko, zerotik hasita for-

malitate guztiak betez, eta hala egingo da.

Aurrekontuei begira, zerri emango diozue lehentasuna?

Aurrekontuak orekatuak izatea da gure lehentasuna, zerbitzuak bermatu ahal izateko. Aurrekontuak murrizten joateko tendentzia dute, eta dirulaguntzak lortzea gustatuko litzaiguke Kanpinaren kanpokaldea berritu ahal izateko. Egin nahi ditugun proiektu asko daude, baina kontuan izan behar dugu pixkanaka egin beharrekoak direla.

Zein dira proiektu horiek?

Herri baratzaren proiektua, adibidez. Aurreko legealditik dator eta eskaera handia dago. Gaur egun, lur publikoetan jende askok du baratza, eta beste askok ez. Proiektu honen helburua da partzelak birmoldatu, ordenatu eta arautuz herritarrek partzela horiek erabiltzea, materiala elkarbanatuz.

Autokarabanentzako eremua ere herritar askok eskatu dute. Gatazka sortzen da herritarren artean, ibilgailu handiek kalean toki asko hartzen dutelako, baina beste guztiek bezala, aparkatzeko eskubidea dute. Arazo horri aurre egiteko, autokarabanak uzteko eremu bat prestatu nahi da.

Kale garbiketaren gaian ere ahalegin handia jarri nahi dugu. Duela urte asko egin zen garbiketako kontratua, eta luzatu egin da, baina herriaren garbiketa beharrak aldatu egiten dira denborarekin. Eremu batzuk garbitu gabe geratzen zirela konturatu ginen, eta kale garbiketaren gaiak lanketa bat behar dugula uste dugu. Gaia mahai gainean jarri genuen eta ardura hartu behar duenak hartu zain gaude.

LUXARBE

igeltzeritza

Igeltzeritza orokorra,
denotarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe.

Lan txukuna
eta merkea.

Tfnoak: 943 53 59 00

Maidor Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.
Arrantza 63 - 20810 - Orrio - Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri

PODOLOGIA ZENTROA

libe

dietetika
elkadura aholkularitza

elutxo gudariak 35 - ORRIO

tel/fax: 943 89 00 69
Bakea kalea, 4 - 20.800 ZARRATZ

URBIDE

ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA

IGLESIAS

SARRAILAGILEAK

24 ORDOKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiasj@arrailagileak.es
20810 ORRIO

- ATEAK INKUTZEN DITUZU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTERKO MALOKUIN ALDAKETAK
- KOMUNITATEKENTZAKO ZERBITZUA

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orrio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra



gizarte kutxa

HAIZE & BERRI

italarra-jakintza-kafetaria

Plater konbinatuak,
holata,
hankurgak,
ruxioak,
egoneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

HAUILETA HELIUMENTZAKO JANTZIAK

ROSA

GARBIÑE ARRILLAGA
ARRITZAGA PALLA 2 - TEL. 943 13 19 40

10% DESKANTUA FAMILIA UGARIENTZAKO

MANTEROLA S/L

ESFERA ETA RETENTZIOKO
BALBULAK



Santiago auzoa - 18 postaketa
Tel. 943 830 143
Fax. 943 134 034
Email: manterola@manterola.com
20810 ORRIO - GIPUZKOA

Enfiteka balbula
RENOV kalitate inatagiriak

GARMENDIA

INMOBILIARIA - AHOULAKARITZA - KESKURAK

Ibai Ordo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

Gabon

TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09

Alustiza Autobusak

Alustiza Bideak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 25 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

Errutina mode On!



Itziar Urretabizkaia

Bukatu zaigu uda arnas batean eta konturatu garenerako agur eguzki beroari, agur hainbeste gustatzen zaigun azaleko kolore marroiari eta agur gau epel goxoei. Haurdunaldi bat baino etzaigu falta berriz gure artean izan dadin! Baina enaiz fatalista jarriko horretarako badaukagu telebista izeneko elementu *lagungarria* etxean. Bere papera ondo betetzen egunero gogoraraziko digu uda amaitu dela eta horrek dakartzan ondorio latzak: opor amaierako sindromea, bikote askoren dibortzioak, alergiak, eskolarako haurren gastuak eta nola ez, langabeziaren igoera.

“Zortedunak -tamalez gaur egun halaxe deitu behar zaie- lanera eta besteak berriz lan bila.”

Datuek ere hala diote, uda ta gero milaka pertsona dira berriz langabeziara itzultzen direnak batez ere bestean oporrak atseginagoak izan daitezen zerbitzu lanetan ibili direnak. Uda amaitzea beraz, txarra denontzat.

Denok errutinara buelta! Zortedunak -tamalez gaur egun halaxe deitu behar zaie- lanera eta besteak berriz lan bila. Goizean goiz jeiki eta kafe bat hartu ondoren ordenagailua piztu eta ezagun zaizkigun lan eskaintza orriei eguneroko errepasoa ematen hasi, ia gaurkoan ikasitako zerbaitekin edota lan esperientziarekin erlasionaturiko zerbaitekin agertzen den. Curriculuma bidali edo enpresan bertan entregatu, baliagarriz izan daitekeen kurtsoren bat egin dezakezun begiratu, hauen prezioak, ezer ateratzen ezpada kanpora joatea planteatu....Denok Europara begira jartzen bagara, zer One? Tira, tira sokari!



Onetsine Arrizabalaga

Ai, Itzi, bukatu da bai uda! Egunerokora itzuli, batzuk lanera baina beste asko lan bila tamalez. Lana bilatzearena bere horretan lan bat da, ordu asko eta ongi antolatuta eraman beharrekoa. Etxean lanik topatu ez eta maleta urdaiazpiko eta gaztaz bete eta zorte hobeagoaren bila jende asko erbesterratu da azken urteetan.

Baina urrutiko intxaurrek hamalau, gerturatu eta... lau! Kanpoan lan egitea ere ez da hain erraza. Batetik hizkuntzak jakin behar. Ingelerazko eskolak gazte gehienok hartu ditugu, eta gutxi edo gehiago ezagu-

“Baina... gazte abenturazale guztiak kanpora bagoaz, nor geratuko da herria eusten?”

tzen dugun hizkuntza da. Baina kontuan hartu behar da, ingelera ez den beste hizkuntza bat hitz egiten duten herrialdera bagoaz, hizkuntza horren jakintza izatea oso lagungarri izango dela; lan askotarako, gainera, egoki erabiltzen jakitea beharrezkoa izan daiteke. Era informalean erabiltzen jakiteaz gain formalean erabiltzen ere ikasi behar!

Beste alde batetik soldatak daude. Enpresa askok kanpoko eskulana hartu eta ez die inondik inora bertako langileei bezain beste ordaintzen.

Eta azkenik, kultura eta bizimodu berrietara moldatzera, lagun eta erlazio berriak egitera prest egon behar da bat.

Hori dena kontuan hartu ostean, ordea, esperientzia paregabea da kanpoan bizitzea, gomendagarria benetan! Baina... gazte *abenturazale* guztiak kanpora bagoaz, nor geratuko da herria eusten?



Jon Garate

Ez omen dugu lanik egiten

Duela bi urte, hondartzan lanean hasi nintzenetik, mespretxuzko zenbait esames entzun behar izan dut askotan. Sorosleok ederki bizi garela eta ez dugula ezertxo ere egiten diote batzuek, eta niri horrek amorrarazi egiten nau.

Oso erraza da ezjakintasunetik hitz egitea. Gure lana zertan datzan eta zehazki zer egiten dugun jakin gabe aise botatzen dute batzuek beren epaia. *Goizean berandu sartzen zarete lanera. Pare bat paseo eman, bazkaldu eta hondartzan dagoen aulki altu horretan eserita ematen dituzue orduak, ezer ere egin gabe.* Horrelako zenbait entzutea tokatu izan zait niri.

Ez dakit jendeak zer espero duen sorosleongandik. Barra konpontzea, igeriketa ikastaroak ematea edota edariak saltzea? Askoek gauza harrigarriak eskatu izan dizkigute. Esaterako, zakurrak hondartzatik kanpora bidaltzea, uretan galdu dituzten betaurrekoak bilatzea edo urertzeko zaborra jasotzea. Sorosleen lana egi-

teaz gain, udaltzainena eta hondartzako mantenu langileena ere egitea nahi dute.

Gure lana zehazki zein den esatea zaila da. Hondartzan sortu daitezkeen arazo mota ezberdinetan laguntzeko gaudela. Lehentasuna, ordea, uretan dagoen jendea zaintzea eta denen segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartzea da. Gure hondartza, euskal kostaldeko arriskutsuenetarikoa da azken aldian horren famatuak egin diren *orillerengatik* eta nahiko lan izaten dugu. Beraz, ezer egiten ez dugula

uste duten guztiei kontrakoa frogatzeko, onena datuak ematea dela uste dut. Orioko hondartzan, 2014ko udan –iraileko datuak falta dira– 597 asistentzia izan dira. Horieta-tik 30 uretako erreskateak.

Amaitzeko, esan nahiko nuke, aipatu ditudan kritikak egiten dituztenak gutxiengoa direla. Badago beste jende asko gure lana baloratzen duena, eskerrak ematera etortzen dena eta baita opariak egiten dizkiguna ere. Hortaz, horiei guztiei eskerrik asko.

Goizean berandu sartzen zarete lanera. Paseoak eman, bazkaldu eta hondartzan dagoen aulki altu horretan eserita ematen dituzue orduak. Horrelako zenbait entzutea tokatu izan zait niri!





Lukene Lizaso

Aurten bai!

Garbi utzi dugu arratsalde pasa ez garaela joaten, urte osoan gogor entrenatu dugu aurten lortutakoa amets. Eta amesten jarraitu nahi dugu, ametsak egi bihurtzea gure esku dagoelako.

1 7.30ean edo 18.30ean hasitako entrenamenduak beti 21.00tan amaitzen dira. Beti horrela da, berdin du zenbat denborako *rodajea* edo serieak diren. Etxera joan, afaldu, ohean sartu eta lo. Lo ederki, nekatua dagoen gorputz batek egiten duen bezala, lo eta ametsetan, askorentzat aurten egi bihurtu zaigun ametsetan.

Irailak 4a traineruko neskentzat ahaztuko ez dugun eguna izango da, baita hortik irailak 14 arte bizitakoa ere –batzuentzat 15 arte luzatua–, talde gisa urte gogor honetan lortu dugun garaipena iritsita hori bizi eta disfrutatzea geratzen zitzaigun. Beti kanpotik bizi izan dugu, Kontxako estropada ondoren, arranplan gora doazela, arraunlariek jasotzen duten ongietorria biziko genuen. Guk, bai guk, Orioko neskek, askorentzat arratsalde pasa joaten diren neska *kuadrila* horrek.

Hau dena ez dugu jendearen ahoa ixteko egin, gure buruari zor dioguna egin dugu, gure buruari erakutsiz zertarako gai garen. Garbi utzi dugu arratsalde pasa ez garaela ibiltzen, urte osoan gogor entrenatu dugu aurten lortutakoa amets. Eta amesten jarraitu nahi dugu, ametsak egi bihurtzea gure eskuetan dagoelako –eta haizean, eta kalean eta marean... kar kar kar–.

Ahaztuko ez dugun eguna, urte guztia talde berarekin etxekoekin baino denbora gehiago pasatzen duzunean, zure alboan doana, ahizpa izatera pasatzen da, badago *amatxo* dena, badago *aitatxo* dena, eta badaude ahizpak, asko gainera.

Ohore bat izan da zuekin urte hau pasatzea, momentu onetan gauzak errazak izan ohi direlako, baina zailetan ere hor egon zaretelako. Azterketa garaiak, lan egun txarrak, umore kaxkarreko egunak, ohean geratzea hobeto den egun horiek guztiak aguantatu dituzuelako. Klaudio eta Erki eskerrik asko gure eredu izateagatik eta gauzak hobeto joaten hasi direnean ere gehiago eskatzeagatik, baita Antxiñe, Oihane eta Markel, Maite eta Ramoni, zuen aita eta gizonak, hainbeste emakume artean erotzeko beldurra ez izateagatik. Enekeri ere, segundoak *jaten* laguntzeagatik. Eta nola ez, igandean gurekin izan zineten guztiei, plazan bildutakoei eta neskei txalo eta biba egin diezuen guztiei. Urte hau boro-biltzen lagundu diguzue. Hurrengo urtean udaletxeko balkoian gaudela ere zuen aurpegiak bilatuko ditugu eta zuekin ospatuko dugu.

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Santi Barranco aseguru agentea
Arbaga 2, 2. eskuina ORIO
TF: 618 581 308 - 659 218 221 e-posta:
SEGUROS BILBAO | Grupo CATALANA OCCIDENTE



Erriora salto moila bazterretik!

Udan sarritan ikusten den argazkia da haurrak moilatik salto egiten duteneko. *Murgil, bonba, txondo...* mila eratarata egiten dute jauzi gazte-
txoek moila eta zubia tranpolina dutela. Orduak ematen dituzte salto eta salto artean, eguzkia sartu arte.

Ikasturte berriaren hasierarekin batera hasi da eguraldi ona. Haurrek, eskoletatik ateratzean hondartza joan ordez, nahiago izaten dute moilara hurbildu eta saltoka ibili. Irailean ohiko erretratua izaten da argazkikoa. Gazte asko elkartzen dira eta elkarrekin nahiz banaka egiten dute jauzi.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-
rritakoa dela jarrita.

KARKARA

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia,
Etxeko produktak: triptoki, edakia,
txokoma, txerizoa, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

PIZZERIA

ZABALIKI PROBATU EZAZU!

KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELIFONOA: 943 24 89 46

ITZALA

*Kokotxak jokatzen
apartak*

Tel. 943 83 12 51

KOLON TXIKI

*antzerkiak
drama*

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

Carmen eta Txomin

ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47



Koldo -ezkerrean- eta Iñaki -eskuinean- graduko bigarren mailan daude. KARKARA

“Gastronomia ez da sukaldean aritzea bakarrik”

Iñaki Azkue eta Koldo Manterola

Basque Culinary Centerreko ikasleak

Lehengaia ezberdin erabiltzen dute jatetxeek, helburuaren arabera. Bi ikasle hauen xedea gastronomiaren adar guztiak ezagutzea da. Beren pasioa sukaldaritza da, eta besteek kozinatutakoa jatea, plazerra.

OLATZ ARTOLA ETA MIRIAM GARCIA

Koldo Manterola –Aia, 1995– eta Iñaki Azkue –Orio, 1995– gaztetatik aritu dira sukaldean. Manterola 15 urterekin hasi zen Elkanon lanean eta Azkuek Argiñanoren Aiala eskolan ikastaro bat egin zuen. Ordutik sukaldaritzan murgilduta da biltza eta 18 urterekin BCCen eman zuten izena.

Zer dela eta sukaldaritza?

Azkue: Jendearekin harremana egiten duzu eta zuk egindakoa gustuko dutela ikustea polita da.

Manterola: Sukaldean sartu eta zuk zeuk egindako platera kozinatu dezakezu, ikusi gai zarela produktu batetik abiatuta plater eder bat egiteko.

Azkue: Eta, batez ere, guri jatetxeetara joatea gustatzen zai-gulako. Jale onak garelako.

Sukaldaritzaren hainbat adar ezagutzeko aukera ematen dizue BCCek?

Manterola: Oinarrizko ezagutzatik abiatzen gara eta lau urteren buruan rol ezberdinak ikasten joango gara. Gastronomia sukaldean aritzearekin lotzen da, baina ez da hori bakarrik, kudeaketa, sala, hornikuntza...

Azkue: Ez da sukaldaria izatea bakarrik.

Zuek jatetxe ezberdinak ezagutzeko aukera izan duzue, behintzat.

Azkue: Batzuetan lehengaia da oinarria, eta hori ahalik eta gutxien manipulatzeko ahalegintzen dira. Beste batzuetan le-

hengaiak garrantzia gutxiago dauka eta ondorengo elaborazioan jartzen dute fokua.

Manterola: Sukaldaritza oso ezberdina egiten da batean edo bestean. Donostiako Fuego Negron ibili naiz eta sukaldaritza polita egiten dutela uste dut; baina, guztiaren gainetik, jendearen lan egiteko modua da garrantzitsua.

Azkue: Ni Xixarion izan naiz, parrilan. 100 ikasleetatik bik soilik aukeratu dugu sukaldaritzaren adar hau.

Eta ikasle guzti horietatik, zenbat zarete euskaldunak?

Manterola: %25 euskaldunak gara; beste laurden bat espainiar estatukoak eta gainontzekoak Europa eta amerikarrak.

Lagungarria da kultura ezberdinetako ikaskideak izatea?

Manterola: Beren herrialdeetako produktuak ekartzen dituzte eskolara, eta hori beste lurraldeetan dauden sukalde-ohiturak ezagutzeko baliagarria da.

Azkue: Beste kulturatako pertsonak ezagutzea oso polita da.

Eta lehen pertsonan beste herrialdeetako sukaldaritza ezagutzeko aukera daukazue?

Manterola: Lehen mailan estatu mailako jatetxe xume batean egin behar genituen praktikaldiak. Bigarren mailan maila altuagoa duen batetara joaten gara. Hirugarren eta laugarren mailan Europa edo mundu mailako edozein jatetxe edo enpresetara joan gaitezke.

Euskal Herrian geratuta, ze aukera ikusten dituzue?

Azkue: Hemen zerbait arrakastatsua eta berria egitea oso zaila iruditzen zait.



Bandera hori ugari ikusi dira Kontxako Estropadan. KARKARA

...eta hala ere horiz bete zen Donostia

Sailkapen estropadetan oriotarrek hartu zuten Donostiako Portua, *Aurten bai! Aupa Orio!* oihuak eta talde biak animatzeko bandera horiak as-tindu zituzten. Bi igandeetan zale gehiago joan zen hiriburura eta bandera herrira ekarri ez zuten arren, arranpla zalez bete zen.



Arranplara jaitsi ziren zaleak arraunlariei harrera egitera. KARKARA



Zaleak urduri estropada irratan entzuten. KARKARA



Orioko neskek estropada ondoren. KARKARA



Orioko neskek sailkapena ospatzen. KARKARA

Hartu-eman berezia

Nerbioak dantzan izaten dituzte arraunlariek. Zaleek egindako pasabidea zeharkatuz uretaratzen dira, kontzentratuta. Uretan estropada gogorra aurretik; eta lehorreratzean, zaleak beren esperoan. Helburuak bete ala ez, txaloak. Eta gero, herriko plazan izaten dira zain, egin duten lana eskertu nahian. Kontxa berezia den bezala, arraunlarien eta herritarren arteko hartu-eman ere espeziala da.



Urte osoko festa jai bati begira

Txikota askatzeko eta zinta mozteko eguna ate joka da. Urriaren 5ean Orion Ikastolen aldeko jaia ospatuko da; jasangarria, eroso eta kulturalki zabala.

TESTUA: OLATZ ARTOLA

ARGAZKIAK: ATARIA ETA KILOMETROAK

Egutegian Urriko lehen igandea gorritz borobiltzen dute askok. Aurten, Orioko Herri Ikastolak ondo azpimarratutako eguna da, duela urtebete berei eman baitzien Kilometroetako testigua, Ikastolen aldeko festa antolatzearen ardura.

Tolosa, 2013ko urriak 6. Eguerdiko 12:00etako kanpaiekin jaso zuten lekukoa Orioko Herri Ikastolakoei. Gema Etxabe eta Zigor Saizar Ikastolako ordezkariak begiak dir-dir eta ahotsak dar-dar. Emozioz gainezka.


Txupinazo egunerako, azaroaren 22an egin zen aurkezpenarako, prestaketa lanetan zenbiltzan ordurako. Agenda ekintzaz lepo izandako urte bat borobilduko dute urriaren 5ean.

Jai jasangarriaren alde, urrats bat aurrera

Pauso bat gehiago eman dute aurtengo Kilometroak Jaian. *Aukeran garbian edan* aldarripean edalontzi berrerabilgarriak erabiltzeko apostua tabernetara eta etorriko diren guztiengana zabalduko da.

Tabernariak hala nahi badute, berek hornituko dizkiete edalontziak. Bestalde, sarreretan edalontzia itzultzeko aukera egongo da euro baten truke edo *Aukeran garbian edan* leloa duen txaparen ordainetan. Etxetik edalontziak ekartzeko aukera ere badago. Bestalde, jateko tresna guztiak konpostagarriak izango dira eta zaborraren bilketa gaika egingo da.

Garbitasunean jarri ditu indarrak antolakuntzak, ingurumena alboratu gabe. Bi alorren arteko orekari eutsi dio, eta erosotasunean eta higienean asko irabaziko du Kilometrotera datorrenak.



5gune5kilometrotako ibilbidean

Ibai ertzetik hasi, herriaren bihotza igaro eta Kukuarriren magaletik itsasoraino. Ibilian herri osoa zeharkatzeko auke-
ra egongo da, baita atsedean hartzeko, bainatzeko, dantza egi-
teko, kantatzeko eta tripa bapo betetzeko.

Ibilbidea Ikastolatik hasiko da, hor egingo baita irekiera ekitaldia. Ikastolako gunean Kilometroak menua eskainiko dute 15 euroren truke. Lehen gune honetatik, erria jarraituz eta elizaren itzalpetik pasatuz, bigarren gunera iritsiko gara, San Martinera. Mendi buelta eder batek Abaromendira eramango zaitu. Lau txartelen truke herriko arrantzaleek arrantzatutako hegaluzearekin prestatutako marmitakoa jateko aukera egongo da. Kanpina zeharkatuta hirugarren gunera iritsiko gara, hondartzara. Oria ibaiaren ondotik laugarren gunera, autopista azpira iritsiko gara; eta aurrera jarraituz gero, azken gunera, Mendibeltzera.

Kilometro kopuruek garrantzia zuten Kilometroak jaia-
ren sorreran, sostengu ekonomikoa horren baitakoa baitzen.
Metro kopuruak eta jendearen izerdiak baldintzatzen zuen,
hein handi batean, jasoko zen dirua. Gaur egun babes ekono-
mikoaren ardatzak beste batzuk diren arren, hastapenetara
joan nahi izan da eta belaunaldi berriei ibilaldiak duen ga-
rrantzia ezagutarazi nahi izan zaie.

Ibilbideak duen garrantzia nabarmendu nahi izan da batetik eta gordetzen duen historia azalera atera nahi izan da bestetik. Hamar informazio panel egongo dira zirkuituan zehar, espazio horri lotutako bizipenak eta oroitzapenak islatuko dira bertan; honela, Orioko historiaren berri emango zaie kanpotik datozeinei baita bertakoei ere. Ezkutuan gordetako Orioko eta oriotarren istorioak argitara emango dira panel informatiboen bitartez.

“Edalontzi berrerabilgarriak
erabiltzeko apostua taberne-
tara zabalduko da.”

“Belaunaldi berriei ibilaldiak duen garrantzia ezagutarazi nahi izan zaie.”



Ekintza kultural ibiltari eta zabala

20 kontzertu, 4 ikuskizun, 3 emanaldi, 2 proba, 3 tailer eta 10 erronka. Hamaika dira Kilometroak 2014 egunerako prest dauden ekintzak; goizeko 9:00etan hasi eta iluntzeko 19:00ak arte egitarauan ez dago arnasgunerik.

Txararak, erraldoiak, txistulariak, kantari taldeak, batu-kadak, dultzaineroak, joaldunak, trikitilariak eta elektrotxararak ez dira faltako. Gunetik gurenako bidea arinduko dute, ibilbidean zehar ibiliko baitira.

Herritarrak izango dira protagonista, bai oholta gainean bai beheran. Eszenatokira igoko dira Harribil dantza taldekoak, Danbolineko banda, Ikastolako txalaparta taldea, Xabi Arostegi DJa, eta Gozategi eta Bi bala taldeak.

Gomendioak Oriotarrentzat

Egun handia, jendetsua eta festa girokoa izango da. Jaia al-darte onean igaro dadin eta ezbeharrak egon ez daitezzen ibilgailuei dagozkion oharrak eman dizkie Udalak herritarrei. Autorik ez mugitzea izango litzateke egokiena; garaieetan aparkatuta uztea edota ez erabiltzea. Dena den, ostiraletik aurrera, debekatuta egongo da autoak Abeslari, Arrantzale, Abaromendi, Antilla, autopista azpian, Mendibeltzeko aparkalekuan, Aita Lertxundin, Ibai Ondon eta tren geltokiaren azpian uztea. Hortaz, Kilometroak Jaia ibilbidetik kanpo aparkatzea gomendatzen da: Onibarzako bidean, Anibarko Portuan edo Santioerreka auzoan.

Kotxe erabiltzaileek autopista erabili ahal izango dute herri-tik ateratzeko, baina Oriora sartzeko 8:30etik 20:30era sar-rerra itxita egongo da.

“Gunetik gunerako bidea arin-duko dute, ibilbidean zehar ibiliko baitira.”

“Ezbeharrak egon ez daitezzen ibilgailuei dagozkion oharrak zabaldu ditu Udalak.”

ZENBAKIA

5632,9

Metro. Kilometroak 2014 Erria Txikot! Jaia ibilbideak dituen metro kopurua. Kontxako estropadetako ibilbidearen luzera ber-dina. 3 milia.

OSPAKIZUNA



Historian lehen aldiz

Arraunaren historiako estropadarik entzutetsu eta ospetsuena da Kontxa, 1879a geroztik egiten dena. 135 urte bete berri ditu estropadak baina 2008ra arte ez zuen emakumezkoen presentziarik izan. Duela lau urte hartu zuten parte lehendabizikoz Orioko neskek, eta ordutik ez zuten sailkatzea lortu. Aurtan bai. Historikoa izan da. Lehen aldiz Oriok bi traineru izan ditu Kontxako banderaren lehian.

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Hauteskunderik alderdien estrategiak eta erakundee-tako politikak baldintzatzen dituzte: aurrena, balizko emaitzek eta koalizioek; gero benetako emaitzek eta etorkizunera begirako kalkuluek.”

Jakes Goikoetxea, Berriako erredaktore burua, Berria, irailaren 7a.

“Eskua ahora eramanez, hizketan hasi ziren, kirolariek eta politikariek egiten duten bezala. Han ez zegoen ezpain irakurtzailerik, baina berdin dio: umeak imitatzen ari ziren; telebistan ikusitakoa imitatzen baino ez.”

Anjel Lertxundi, Idazlea, Berria, irailaren 23a.

2GURPIL

Bazkalda 2 - 3 • 20810 Orrio (Gipuzkoa)
943 838 986 www.2gupil.com

LEUNDA OKINGEDIA

ORDUTEGIA

ASTELTCHITIK - LARUNBATERA 7:00 - 20:30
IGARDE ETX JEI EGUTITIK 7:00 - 13:30

MENDIZABAL AROZTEGIA

Nesariho armaruak eta egerlanak

943 831 175 Altzarnizidoc
645 708 493 Bati-Akiz etxoc
mendizabalarri 20810 Aiz-Ordo

Nahikari

HAIKOR DENDIA

Arandazale kalea, 55
20810 - Orrio
Txf. 943 833 20
www.nahikari.es

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943.572083
FAX: 943.571290
Laxenjin@hotmail.es

INBS ASINJO
IRAI ONDO 13
20810 ORRIO

KAXAIO

PLADURRA ETA IGELTSUA

Konponketa eta berrikuntza lanak
pladurra eta igeltsuarekin

4josemaria@gmail.com
656 777 574

Katu Horia

ORIGINALITATEN HIRIA

ESTROPALARI, 10
20810 ORRIO
tel. 943 11 66 99

Larrazaldea
988 88 11 25

www.katuhoria.com

Hondartzaz berriz, hondartzaz berriro

Orio Estilora, bixigu errea eta bandera horiak pitokeriak dira txikienek ur izkinan sortzen ziren putzuzuloetako ur epeletan ipurdi, pitilin eta pototinak sartzeko aukerarik ez badute.



Iñigo Gaiton



raindik patrike-
tan hondar aleren
bat izango dugula
aprobetxatuz, hon-
dartzaren egoerari erre-

paso azkar bat emango diot: hondar zikina, lakarra eta ale lodikoa, hautsa nonahi, olatu arriskutsuak sortzen dituen aldapa galanta *urixkiñan* eta marea jeisten ez denez, uraren kalitate oso txarra. Horra pa-ela txikian nahikoa soberakin *trapuzaharra* sukaldatzeko.

Di-da batean azalduta, horixe daukagu herriko plazatik ki-lometro t'erdia. Urteekin egoerak nabarmen egin du oke-rrera eta herriko jendea, bizi guztiko *oriyotarrak*, Getaria edo Zarauzko hondartzetara joaten hasiak dira *tuperware-ak*, *ensaladilla rusa* eta seme-alabak hartuta. Orain dela ha-mar urte hau gertatuko zela esan baligute, sinestuko al genu-keen? Ez. Ez, ez eta ez. Ingurua aldatu eta beste herriak eza-gutzeagatik balitz bai, baina herriko hondartzaren egoera negargarritik ihesean ez. Datorren udararako *Antillatik de-serriratuak* taldea autobus zerbitzua prestatzen ari omen da inguruko hondartzetara bidaiak errazteko.

Honek, eragin zuzena izango du etorkizuneko oriotarren identitatean: *Orio Estilora*, bixigu errea eta bandera horiak

pitokeriak dira txikienek urixkinan sortzen ziren putzuzuloetako ur epeletan ipurdi, *pitilin* eta *pototinak* sartzeko aukerarik ez badute. Gureak ez bezala, hauen haurtzaroko oroitzapenak Getariako Arratoiaren edo Zarauzko male-koiaren irudiek zipriztinduko dituzte.... Nola mai-teko dugu, bada, plazerra baino auzolotsa, kezka eta negar-gura sortzen digun zerbait?

Oraindik ere hondartza da gurera kanpotar gehien erakar-tzen duena; barkatu, hondartza edo ezkondu zioten parke berdea? Marrubien onena nata omen, eta hondartzarena jo-las-parkea... akabo!

Arazoaren diagnostiko zientifikoa egina dago eta badu nahikoa sinesgarritasun. 2012. urteko Irailean Jose Miguel Edeso EHU-ko irakasle eta Geomorfologian doktoreak argi azaldu zituen bere bi ikaslek egindako ikerketaren emaitzak: hipotesien arabera, ziklo naturalez gain *putomuroa* eta dra-gatze-lanak dira hondartza kaltetu duten bi faktore nagu-siak - Googlen KARKARA eta *Edeso* hitzak jarrita, orduko al-bistea irakurgai-.

Egoera iraultzen hasteko ba omen dira soluzio posibleak. Ea oraingoan ez dituen *auskalozerk* eramaten...





Jon Ander Azpiroz

Tontordromoa dela eta

Ez nuke jakingo dagoeneko zenbait gezur, zenbat elkarrizketa, zenbat hitz goxo eta zenbat eztabaida izan eta esan diren bueltak dituen 970 metroetan zehar.


Eai, ongi irakurri duzue bai. Kirol zirkuitu berria edo Kanposantuko jirako paseo berria, modu honetan bataiatu du herritarren batek *Tontordromoa*. Eta dakidala oraindik izena patentatu ez duenez eta bere baimenarekin –barkatuko al dit behintzat!– Tontordromoaz jardungo naiz.

Izango da ikuskatzaile gutxiago izan dituen obraren bat non edo non, hau adina eduki dituenak izaten ez da erraza izango. Inauguratu eta berehala hasi ziren asko, beren onespena edo “visto buenoa” ematen. Baina gehienak kritikatzeko zeuden, eta oraindik ere badaude: hau horrela egin izan balitz, hau ez al zegoen honela egiterik, horrenbeste kostatzen al zen hau honela egitea.... Beti egoten da zerbait hobetzeko, ni, lehendabiziko kritikatzaila, baina denen gustua egitea asko kostatzen da.

Ez nuke jakingo dagoeneko zenbat gezur, zenbat elkarrizketa, zenbat hitz goxo eta zenbat eztabaida izan eta esan diren bueltak dituen 970 metroetan zehar. Jendea gero eta gehiago ibiltzen da, eta kirol zirkuituan ibiltzeko arauak ezartzen dituen karteltxoak jarri arren, oraindik asko dira betetzen ez dituzten herritarrek. Bai, beno, dagoeneko herritar esan beharko diegu lau hankako gizakiaren lagunik onenei. Lotuta egon behar dutela jartzen dute arauak baina...; txakurrek ez dute kulparik.

Badira, horretaz gain, bizikletaz ibiltzen diren helduak ere oraindik. Grazia egiten dit zenbait garaitan, pertsonok *berri pozak* eraginda edo, hartzen ditugun joera edo maniek, orain arte ere hor egon dira bada Aiako errepideak bizikletaz ibili ahal izateko baina... eta autoarekin ere gabiltzan tentuz edozein kanpotar hasten zaizu eta builaka, autoarekin nora zoazen galdezka, zuk –ezjakin alaena! Pentsatzen duzun bitartean – etxeraino joan nahiko zenukeela adierazten diozun bitartean.

Kontuak kontu eta gertatuak gerta, jendea badabil, eta gertatzen direnak erabiltzen delako gertatzen dira, Matadero-etxeak horrenbeste arrakasta izango ahal zuen? Herritar askok kirolari eman dio eta bizia du. Nork esan behar zuen Kanposantuari bizia eman behar ziola, batzuen bakea guztiontzako onura bihurtuz?





TIPI-TAPA, TIPI-TAPA, KAUJARA
bokata ederrak jatera

Antonia portia 35, berrak
Tel. 943 846 080

Ile apaindegia

MARIJO



Neaka eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8-bajo
Tel. 943 13 47 29
Orio

ODITZ

Donus zaharrekia niretzat
gipuzkoar emakumezkoak

Tel. 943 83 00 89

LURDES

ARMANDO

Eusko Gudari, 4
Tel. 943 83 00 24



Joana Murgiondo
Asegurari-agerilea

ASEGURUAK

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnos: 943 13 46 07



FISIOTERAPIA
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA
TF.: 943 130 577

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR-HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

WWW.SINERGIA-WEB.COM
685 718 595

Kinkladenda- Uma arropa

argine

www.lesoniel.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

zkue



Tf: 943 130 438

zkue

arkaitz taberna

••••• **orio**

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Ateazain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

943 83 17 74
Arantzaz, 31 20800 ORIO



ASADOR XIXARIO

Asador XIXARIO Edm. 2
20800 ORIO (Gipuzkoa)



Sagasti

LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel.: 943 13 00 77
Fax: 943 51 21 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arantzaz kalea, 94
20800 ORIO (Gipuzkoa)



Bellas Artes eraikina, Donostian. DAVID JOSE JACOME

Bellas artes eta estropadak

Oroimenaren kutxa

Irailaren Donostiako *Bellas Artes* antzokiak 100 urte bete zituen. Amarako tren-geltokitik 100 metrora dagoen eraikin zaharrarekin zer egin eztabaidan dabil-tza: bota, zaharberritu edo lehengoari eutsi. Mendeur-ren-egunean, Amaia Zubiriak kantatu zuen antzokiaren ondoko plazatxoan, eraikinari eustearen aldekoen aurrean.

Oroitzen hasteko aukera polita ematen digu Bellas Artesek: Amaiak han kantatu zuen lehenengo aldiz jende aurrean. Zubiriaren ibilbide luze bezain gorabeheratsuan, etapa bat Orion egin zuen: herriko ile-apaindegi batean lanean. Benitok ere Bellas Artesen ekin zion jende aurreko musika-ibilbideari, 1965eko kantu-lehiaketan. Benitok euskaraz kantatu zuen egun hartan, hori inork ere egiten ez zuen garaian, Elvis Presleyren-eta kantuak euskaratuta. Eta euskaraz kantatu zuelako, edo nahiz eta euskaraz kantatu, ez dakigu, baina lehia irabazi eta bidea egiten hasi zen.

Balearen arrantzaren ikerketa-lanean Oriora etorritako Selma Huxley ikerlari kanadarrak, 1993an, honako hitzak idatzi zituen, Goiko Kaleko etxe zahar batzuk botatzeak eragin zion mina adierazteko: *orain 20 urte Oriora iritsi nintze-nean zirrara sentitu nuen ikusita Orion zutik zirela herriko etxe historiko gehienak. Etxe horiek XVI. mendeaz geroztik*

itsas gizonek okupatu zituzten. Azken hiru urteetan hiru etxe historiko bota dituzte; baten armarrarian 1513 agertzen zen, besteek leiho gotikoak zituzten eta grabatu sinboliko bat: arpoilaria, txalupa eta balea. Zergatik ez dituzte gaureguneko oriotarrek behar adina preziatzen beren aurrekoen lan eta balentriak eta ez dute gehiago zaintzen herri ausart honen gune historikoa?

Kultura baten bilakaeran aldaketa asko gertatzen dira. Sarritan gatazkak ere izaten dira aldaketaren aldekoen eta kontrakoen artean. Zentzuzkoena litzateke oinarritzkoari eustea eta azalekoak aldatzen joatea. Benito Lertxundi aurrenetakoa izan zen euskal kantarien artean gitarra erabiltzen; izan zituen kritikak horregatik. Benitok, Amaiak bezala, euskaraz kantatu du bere ibilbide luzean. Estilo eta formetan hainbat aldaketa egin eta eragin dituzte biek ere, baina beren hizkuntzari heldu diote beti.

Donostian, berriz, 2016an Europako kultur hiriburu izateko egitasmoa kudeatzeko, gure kultura Europari erakusteko, talde-buru izateko euskaraz ez dakien bat hautatu dute. Hautaketak eztabaida-hautsak harrotu ditu.

Donostiako estropadak, 135 urteko ibilbidean gauza asko aldatu badira ere, beti izan dira euskal giroaren agertoki nabarmena: pilotan ez bezala apustuak ere euskaraz egin izan dira, zer esanik ez arraunlarien arteko harremanak. Aurten, Kontxako bandera irabazi duen herri euskaldun petoko arraun-klubaren ordezkaria erdaraz mintzatzen agertu zen ETBleko zuzeneko emanaldian; gizonezko patroia den estropalarientzako hitz gehienak ere hizkuntza berean entzun genituen, traineru barruko mikroen bitartez.

Aldaketa-haizeak al dira? Akaba ez, akabo esan behar ote dugu? Gure kulturaren oinarria eta formak, mamia eta azala, garrantzizkoa zer den eta zer ez eztabaidatu, erabaki eta horrekin kontsekuente izateko egokiera daukagu.

IÑAKI ITURAIN

Hondartzako hondarra, draga eta barra muturraren arerio



Antillako hondartzako hondarraren tamaina bikoiztu egin da 24 urtetan . KARKARA

Azken hamarkadatan Orioko hondartzako hondarraren kalitatea aldatu egin dela-eta kezka sortu da herritarren artean. 2012an EHUKo Toponimiako bi ikaslek egin zuten azterketak zioen 24 urtetan hondar aleen tamaina bikoiztu egin zela: 1988an 275 mikra-koak ziren aleak, 2009an 450ekok eta 2012an 700ekoak. Hondartza on baten tamaina hondar fina izatea kontuan

hartuta emaitzek erakutsi zute Orioko hondartzaren kalitatea okerrera doala.

Hondarra ez ezik hondartza bera ere aldatu egin da denboran zehar: hondarra galdu du eta atzeratu egin da. Lehen hondartzaren eskuineko harroketan hondar gehiago pilatzen zen eta ezker aldean gutxiago; aldaketen ondorioz, alderantziz gertatzen da.

Itsabehera zegoenean sortzen zen

hondar lautadaren desagertzeak eta ur-ertzean sortu den aldapak kezkatzen ditu, batez ere, oriotarrak. Olatuak ertzerira iritsi arte ez lehertzeak eta urak metro gutxitan hartzen duen sakone-rak arriskutsu egiten baitu itsasoan bainatzea.

Hondarra mugitu dute

Uda hasi aurretik, apirila eta maiatza bitartean, Antilla hondartzan birprofilaketa lanak egin zituen Itsasertzeko Zuzendaritzak, hondarra ez galtzeko eta horren kalitatea hobetzeko helburuarekin. Hondartzako marea altuena baino metro bat gorago utzi zuten hondarra, itsasgoran urak gainezka egin ez dezan.

Aldaketaren arrazoiak

2012ko txostenaren arabera, bi dira hondartzak azken mende laurdenean bizi dituen aldaketen arrazoiak. Bate-tik, barra berrien ondorioz korranteak eta olatuen norabidea aldatu egin dela.

Bestalde, barra berriaren inguruan egiten diren dragatze lanen ondorioz, gunearen sakonera handitu egin dela dio txostenak. Horrela, olatua hausten den puntua aurreratu egin da, eta hondar mehea eraman eta lodia ekartzen du.

Bildu: Draga arautu beharra

Herritar askok aurten ere inguruko hondartzetara joatea erabaki du gurearen kalitate eskasagatik. 2012. urtetik dagigu, EHUKo adituek egindako azterketak diolako, kanpoko barra eta dragak hondartzaren egoera nabarmen okertu dutela. Portuetako eta Itsasertzetako zuzendaritzarekin elkartu gara draga arautzea eskatzeko. Hondartzak lehenbailehen kalitatezko hondarra izan dezan nahi dugulako.

Orain: Hondartzako altxorra

Erregeak mundu honetan agertu zirenetik eta piratak itsasoak zeharkatu zutenetik denok daukagu altxorren definizioa buruan gordeta. Eta hara non definizioa berriro definitu beharrean gaudela. Bai, altxor hitzaren definizioan hondar-ri toki bat egin behar zaio. Eta arazoari aurre egin eta logikari jarraituz hondarra zaintzeko irtenbideak probatu. Denok jakin beharko genukeen bezala, altxorrek zaindu eta gozatu behar dira.

EAJ: Hondarraren egoera

Gure taldetik jabetuta gaude azken urtetan hondartzak aldaketa nabariak jasan dituela. Aldaketa hauen ondorioz, hondartzak ez ditu aisialdiaren gozamenerako lehengo aukerak eskaintzen. Inguruko herrietan ere antzeko arazoei aurre egiteko hartu diren erabakiek ez dituzte espero ziren emaitzak eman. Ahalmena duten erakunde eta adituekin elkarlanean irtenbideak aztertu beharko litzateke.

■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

lupi!

Lehenengo mailan gaude!



Gaur urduri jaiki naiz, Ikastolako lehenengo eguna da eta ez dakit zein izango den nire gela. Uste dut lan handia egin beharko dugula, lehenengo mailan gaudelako. Gainera, aurtan irakasle berria daukagu, ea nolakoa den! Lagunak ere berriak izango ditugu. Nire betiko lagunak nire gelan egongo al dira? Bakoi-tzak bere liburuak izango ditugu eta baita etxeko lanak ere! Informatika gela, kiroldegira soinketa egitera... ai ama! Ze handia naizen!

■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Eskola txiki geratu zaigu



Hasi berri dugun ikasturte honetan inoiz baino ikasle eta irakasle gehiago gaude eskolan: 143 ikasle, 94 familia eta 16 irakasle. Haur Hezkuntzan lau gela ditugu eta bertan 78 ikasle dabilta. Lehen Hezkuntzan, berriz, bost gela dau eta horietan 65 ikasle gabilta. Zazpi ikasle dira eskola utzi dutenak eta etorritakoak, aldiz, 13 dira. Ikastetxea jendez gainezka daukagu, eta eskola berri baten beharra gero eta nabarmenagoa da.

■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Ikasle eta irakasle berriei ongietorria



Zaragueta eskolan aspaldiko ohiturari jarraituz, aurtan ere, ikasturtearen Igo egunean, ekitaldi bat egin genuen. HH-ko eta LH-ko guztiok –2 urtekoak izan ezik– bideo gelan elkartu ginen ikasle eta irakasle berriei ongietorria egiteko. Zuzendariak banan-banan aurkeztu zituen etorri berriak eta ondoren kantatu saioa egin genuen: *Mirotza*, *Eba Mi-rentxu* eta *Zorionak* abestiak kantatuz bukatu genuen. Ikasturteari hasiera emateko modu polita, ez da?



Uxue Eizagirre

Saioa Sanchez

Aimar Azkue

Ikasturte berria

A maitu dira, konturatzerako, ekainean hain lu-zeak ziruditen udako oporrak. Batzuk kanpoan igaro ditugu, beste batzuk, etxe inguruan.


Bukatu dira berandu arte ohean egoteko aukerak, bazkal osteko kuluxka gozoak, hondartzako zein igerilekuko lagunarteko jolasak, gurasoei *matraka* emateko aukerak, presarik gabeko parrandak, eta batez ere, alferkerian egoteko aukerak.

Orain, berriz ere, goiz oheratu eta esnatu behar, egunero eskolara joan behar eta eskolako lanak egin behar, irakasleak jasan behar, etxerako lanak egin behar eta horiekin batera gurasoen errietak jasan behar; azterketak prestatu behar eta gogoko ez ditugun hainbat eta hainbat gauza egin behar. Behar, behar behar...

Gauza on gutxi batzuk ere bururatzen zaizkigu: eskolako lagun zaharrak ikusiko ditugu berriz ere, eskola kirolean aritzeko aukera izango dugu, gogoko ditugun saioak, irteerak... Gainera, gure etorkizunerako hain garrantzitsua izango den ikasketak burutuko ditugu. Hori esaten digute behintzat.

Aipatu ditugun alde onak eta txarrak alderatu ditugu, eta ondorio garbia atera dugu: Aldapa gora egiten zaigu ikasturte hasiera. Bai horixe!

Orain, berriz ere, goiz oheratu eta esnatu behar, egunero eskolara joan behar



Zarautz

Hileta Zerbitzuak

- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra



Harrespil

Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

SARASUA ERRETEGLIA

Plater bereziak:

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel.: 943 83 00 05/
943 13 25 32

OREKA FISIOTERAPIA



**TENDINITISAK
LUMBALGIAK
ARTROSIA
ZEFALIAK ...**

**MASAJE TERAPEUTIKOA
BENTUSAK, AKUPUNTURA
ESKUZKO TERAPIA
OSTEOPATIA**

943 13 35 37

BEYBARRA KALEA, 17 BEHIA

PERTSIANAK



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27



AIRDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

ANTILLA

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

BODEGAS

Gailur

Arakur Etxeak

ZUDUGARAI



Gabriel Txabala

Tel. 943 83 03 84
Fax 943 83 03 82
www.bodegagailur.com

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udahe



aseguru artekaria
finika administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 25 Fax 943 83 54 90 itsasadarra@itsasadarra.com
Itzi Ondo 4. beheko 20810 Orrio

ardoak, urdalkiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu



943 83 09 84

alta lertxundi, 36
ORIO

Lizaso dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 18

Eusko Gudari, 48



RESTAURANTE
Gailur

**MARISKADA
33,50€**

Telf: 943890416



Aurten kamioi baten gainean egin dute eszenatokia. GORKA PUERTAS

Giro ona eta ondo pasatzeko gogoia

Kritika Reggae

Kontzertua. Reggae kontzertua eskaini zuten abuztuaren Orioko Antilla hondartzan.

Urte batzuk badira dagoeneko herriko musikari batzuek elkartu eta udara bukaeran reagge kontzertua eskaintzen digutena. Eta aurtengoan ere ezin falta: abuztuaren azken larunbatean izan zen, hain zuzen ere. Kontzertua klasiko bihurtu zaigun arren, urtero izaten da nobedade-rik. Aurtengoan, kontzerturako aukeratutako eszenatokia. Ez zen ez nolana hikoia: surf-taldeko lokal alboraino kamioi bat eraman, trabeska jarri kabina hondartzara begira, eta haren gainera igota eman zuten kontzertua musikariek. Udako gau epelean hondartza inguruak ez du aitzakiarik iluntze zein gau partean edozein plan egiteko, zer esanik ez halako kontzertu baterako.

Kitarra, bateria, baxua... nahiko lan kamioi gainean musika-jole guztiak batera kabitzen! Urtetik urtera inkorporazio berriak ere izaten dira taldean eta eskertzen da. Lotsak albo batera utzi eta ondo pasatzeko gogoia nahikoa da oholtzara igo eta lagun eta herritarren aurrean kontzertu gozagarri bat eskaintzeko. Igartzen da giro ona eta ondo pasatzeko gogoia dutela taldekideek, guztiok dantzan jarri gintuzten eta.

Reagge kontzertua deitzen badiogu ere izan zen beste hainbat generotako kanturik ere, denak ere ezagunak han geundenontzat. Urtero antzerako erreperatorioa izanagatik ere ederki gozatu genuen denok ere betiko kantuekin.

Hurrengo udarako kontzertuaren zain gelditu beharko orain.



Gizartea

Bisitari kopuruak behera egin du Aiako igerilekuan

Oporrak bukatzean hasi da uda; eguraldi ona irailarekin batera etorri da. Aiako igerilekuan nabaria izan da eguraldiaren eragina, salmentak asko jaitsi baitira uda honetan. *Aldagai bakarra ez da eguzki falta izan, baina egia da horrek gogor jo gaituela*, aitortu du Pili Azpirozek. Eguraldia, krisia eta Asteasuko igerileku berria. Irailean eguraldi ona egiten hasi duen arren, jendea jada ez da igerilekura etortzen, haurrak ikastetxean eta gurasoak lanean hasten baitira.

@ karkara.com/aia/1410267820336



HASI TXIOKA

Gustatu al zaizu arraunari buruzko ale berezia?



Ingurumena

Marea altu eta baxuenak

Urteko marea bizirik altuena izan zen irailaren 10ekoa, baita azken hiru urteetako altuena ere. 4.90 metro inguruko altuera izan zuen arratsaldeko 18:14 inguruan. 2011ko martxoaren 22an izan zen azken azken urteetako marearik altuena. Datorren urtean hiru alditan gaitutuko da aurtengo marka: otsailen, martxoan eta irailean. Hiruretan bost metrotik gorako mareak espero dira.

Gizartea

Pauso bat auzolanean

Urrats berri bat eman du Kilometroak Jaiak auzolanaren eta partaidetzaren alorrean. Donostiako Goienetxe Fundazioarekin bat egin du Erria txikota! aldarriakin. Adimen urritasuna duten pertsona helduekin egiten du lan fundazioa, eta zehazki Berio Garagunen dabilzan sei lagunek hartuko dute parte Kilometroakeko antolakuntza lanetan.

Ingurumena

Aranzadiren SEMBET proiektua Orion

Aldaketa sozialak direla medio, belaunaldiak elkarrengandik urruntzen ari dira eta gainera, espazioa eta bizipenak partekatzeko guneak urriak dira. Beraz, tokiko komunitate batean pertsona nagusiek belaunaldi berriei memoria soziala transmititzeko gero eta abagune gutxiago dago. Hutsune hori beteiko du Orion egingo den SEMEBT proiektuak. Tailerren bidez anguleroen historia, emakumeen garrantzia arrantzan eta gaur egungo gizartean edatetuen eta gazteen arteko harremanak landuko dira.

Josu Atorrasagasti @josuporpo - 12 h
Herri baten deladama gaur Bartzelonan bizitakoa. Hankak lurrean, etorkizuna argitsu. Eredugarri. Berezi.

Retweeted by Karkara
Umap Euskaraz @umapEU - 23 h
Azken 6 orduetako joerak: #aupaorio #kontxa #28akEreLIBRE #RealSociedad #kontxa2014 umap.eu/joerak/azkenak... #umap #euskaitt

Retweeted by Itxaso «21»
Nadeth Agirre @NadethAgirre - ira. 7
Etb1- ek 19:30tan Donostiako Banderan errepikapena bota bertzun. Ze jokatu due mutilak bakarrik? Neskana eztaue botaber? Oso ondo

Iker Gozategi @IGozategi - Sep 1
Ondo do baldeka ura jela beteta burutik bera botatzia.. Baño diruz znbatek donatzeuen jakin nahiko nuke



Kultura

Citizen Kane taldearen azken agurra lagun artean

2008an sortu zen, Orion, Citizen Kane. Martin Zulaikak, Jon Dorronsorok, Alexander Zubizarretak eta Eñaut Martík osatzen zuten musika taldea. Taldekideak gazteak ziren, adin txikikoak, eta ilusioz ekin zioten bidai berriari. Orain, sei urte beranduago, taldekideen ilusioak, helburuak eta lehentasunak ezberdinak dira. Desberdintasun horiek elkarrekin duten harremana kalte baina lehen, orain sei urte hasitako bidea etetea erabaki dute.

@karkara.com/orio/1410954395462



Ingurumena

Gutxienez 3000 urteko aizkora aurkitu dute

Abaro mendian lurra lantzen ari zirela harri bat aurkitu zuten Figuerido eta Zubiriak. Ez zen ohiko harri bat, landuta eta leunduta zegoena baizik. "Negu bukaera aldean, landareak aldatzen ari ginela, atxurrarekin harria jo genuen", azaldu du bikoteak. Honela egin zuten topo harri bereziarekin. Aranzadirekin kontaktuan jarri eta historiaurreko harrizko aizkora zela jakin zuten, duela 3.000 edo 6.000 urte ingurukoa. Aizkorak 13 zentimetroko altuera eta 6 zentimetroko zabalera dauzka.

@karkara.com/orio/1411135092633

Kontxako Estropadak zaleen begietatik ikusita



@karkara.com/orio/1411390784589



Marea biziak: azken hiru urteetako marearik altuenak



@karkara.com/orio/1410419219430



Outlet azokako postuen argazki bilduma



@karkara.com/orio/1409563918336



AGENDA

Orio

Surf Txapelketa

■ Irailaren 27an eta 28an, Antilla hondartzan, 10:00etatik 19:00etara, Orioko Surf Taldeak antolatuta. Izen-ematea OST-ren lokalean. Modalitateak: Open, Neskak, Sub 16, Body Board eta Long Board.

Kilometroak

■ Urriaren 5ean, egun osoan eta herri guztian.

Musika

■ Urriaren 17an, Mixel Etxekoparten kontzertua, 22:30ean, Kultur Etxean.
■ Urriaren 31n, Xabier Lizasoren kontzertua, 22:30etan, Kultur Etxean.

Antzerkia

■ Urriaren 10ean, *Hiru* antzerkia, 22:30ean Kultur Etxean. Antzezleak: Loli Astoreka, Miren Gojenola, Ana Elordi eta Zuhaitz Gurrutxaga.

Aurkezpena

■ Urriaren 16an, Iñaki Iturainen Gerra bat barruan degula, 1936ko gerraren ubera Orion liburuaren aurkezpena, 19:00etan, Kultur Etxean.

Jardunaldiak

■ Irailaren 30ean eta urriaren 1ean, Aranzadiren Sembet proiektuaren

jardunaldiak, 16:30ean, Kultur Etxean.

■ Urriaren 7an eta 21ean, Euskara sustatzeko ekintza planeko -ESEP- jardunaldia, 19:00etan, Salatxo aretoan.

Besteak

■ Urriaren 14an, Bizkar hezuraren osasunari buruzko hitzaldia, 18:00etan, Kultur Etxean.

■ Urriaren 24an, Teodoro Mitxelena fusilatuaren omenezko ekitaldia, 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan.

Aia

Sanmielak Laurgainen

■ Irailaren 26an, auzo afari herrikoia, Atsedeen toki Elkartearen -prezioa, 25 euro. Izen ematea Aiako Iturriozena tabernan irailaren 25a baino lehen-. Afalostean, erromeria Izer eta Alabierrekin.

■ Irailaren 27an, mus txapelketa 16:30ean -izen ematea 16:00etan hasiko da eta bikote bakoitzak 20 euro jarri beharko ditu-. 23:00etan erromeria Itsaso eta Iruñe Elizagoinekin.

■ Irailaren 29an, San Miel meza, 10:30ean. Ondoren hamaiketako eta herri kirol erakustaldia, trikitilariekin.

Podologoa

■ Urriaren 25ean, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	09:41 eta 22:21	03:26 eta 16:04	
02	10:56 eta 23:48	04:34 eta 17:22	
03	12:25 eta ____	05:55 eta 18:45	
04	01:14 eta 13:43	07:14 eta 19:57	
05	02:23 eta 14:46	08:21 eta 20:56	
06	03:18 eta 15:39	09:16 eta 21:47	
07	04:06 eta 16:26	10:06 eta 22:33	
08	04:51 eta 17:11	10:51 eta 23:16	
09	05:33 eta 17:54	11:35 eta 23:58	
10	06:14 eta 18:35	12:17 eta ____	
11	06:55 eta 19:17	00:39 eta 13:00	
12	07:36 eta 20:00	01:20 eta 13:43	
13	08:18 eta 20:45	02:02 eta 14:29	
14	09:05 eta 21:38	02:47 eta 15:19	
15	10:02 eta 22:45	03:39 eta 16:20	
16	11:15 eta ____	04:43 eta 17:34	
17	00:08 eta 12:38	06:01 eta 18:52	
18	01:26 eta 13:48	07:16 eta 19:56	
19	02:24 eta 14:40	08:15 eta 20:45	
20	03:07 eta 15:21	09:01 eta 21:24	
21	03:44 eta 15:57	09:39 eta 22:00	
22	04:17 eta 16:30	10:15 eta 22:33	
23	04:49 eta 17:03	10:49 eta 23:06	
24	05:20 eta 17:36	11:23 eta 23:40	
25	05:53 eta 18:10	11:58 eta ____	
26	05:26 eta 17:46	00:15, 11:34 eta 23:51	
27	06:03 eta 18:25	12:14 eta ____	
28	06:43 eta 19:09	00:31 eta 12:58	
29	07:31 eta 20:03	01:17 eta 13:49	
30	08:29 eta 21:10	02:11 eta 14:52	
31	09:41 eta 22:32	03:17 eta 16:06	

ZAINTZAKO BOTIKAK

OTSAILA

■ 1ean Iriarte.
■ 2an, Etxeberria.
■ 3an, Mutiozabal.
■ 4tik 10era, Lasa.
■ 11 eta 12, G. Artiñano.
■ 13an, Iriarte.
■ 14ean, G. Artiñano.
■ 15ean, Mutiozabal.
■ 16an, Etxeberria.
■ 17an, G. Artiñano.
■ 18 eta 19, Azaldegi.
■ 20an, Iriarte.
■ 21ean, Mutiozabal.
■ 22an, Larrañaga.
■ 23an, G. Artiñano.
■ 24an Azaldegi.
■ 25 eta 26, Etxeberria.
■ 27an, Mutiozabal.
■ 28an, Etxeberria.
■ 29an, G. Artiñano.
■ 30ean, Azaldegi.
■ 31n, Zulaika.

Azaldegia: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
G. Artiñano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan eskaria

■ Neska oriotarra, umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota klase partikularak emateko prest. Esperientziaduna. Tf: 671743088. Ainhua
■ Esperientzia eta erreferentzia dituen neska lan bila. Haur eta helduen zainketa, beste edozein

lanerako prest. Paperak araututa. 664 681 908

Salgai

■ Estreinatu gabeko garbigailu berria salgai, 5kg-ko kapazitatea du. Prezioa 100€. Tf: 652754699 / 637392862.
■ Pisua salgai Abaromendin. 61 metro karra-tu eta 140 metroko jardi-

na. Bi logela, komuna, sala eta sukaldea. Erabat hornitua. 637419729

■ Pisua salgai edo alokagai Kale Nagusian. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Alokairua 500€, salmenta 140.000€ Tf: 661 679 691
■ Garajea salgai Orioko Goiko Kanean. Tf: 688 69 14 45 edo 688 84 43 18

Kontrazaleko argazkia

Orio AEko nesken trainerua Kontrazaleko Estropadarako sailkatu ondoren. 2014ko irailaren 3an. Argazkia: KARKARA



BISITA GIDATUAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JAUREGIAN

Ezagutu jauregiaren historia eta aretoek gordetzen duten ondare artistikoa

Taldea osatu eta eskaera egin
info.gipuzkoa@gipuzkoa.net helbidean



www.gipuzkoa.eus

